



8 M

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**EMAKUMEAK ETA
BAKAILAOAREN MUNDUA**



**EUSKAL
ITSAS
MUSEOA**

**MUSEO
MARÍTIMO
VASCO**

Gure kostaldeari kresal eta arrain usaina dario, eta itsasoa bezala, historia gaziz blai eginik dago.


Historia horietako bat, emakumeek bakailaoren munduarekin izandako harreman estua alegia, baztertua egon ondoren, azken urteetan azaleratuz ari da, ikuspuntu ezberdinetatik aztertua izan ondoren.

Historia honen lehen aztarnak euskaldunak Ternuara joaten ziren garaietan aurki ditzakegu. Donostiako portua bakailaoaren helmugetako bat zen eta, bertan, emakume taldeek ontzietako kapitainekin zamaketa lanak adostu ondoren, bakailaoa ontzietatik Kontxako ondartzan zeuden etxoletara eraman eta han fardoak egiten zituzten.

Nuestra costa huele a salitre y pescado y, como la mar, está impregnada de historia salada.

Una de estas historias, la estrecha relación de las mujeres con el mundo del bacalao que había sido tradicionalmente silenciada, se está visualizando en los últimos años, tras haber sido estudiada desde diferentes puntos de vista.

Los primeros vestigios de esta historia los encontramos en la época en la que los vascos iban a Terranova a pescar. El puerto de Donostia-San Sebastián era uno de los destinos preferentes del bacalao. En las cabañas de la playa de la Concha eran las mujeres las que acordaban las operaciones de carga y descarga con los capitanes de los barcos y las que se encargaban de preparar los fardos.



Baina denbora joan eta denbora etorri, gure bakailao espedizioak murriztuz joan ziren eta 18. mende hasieran Hegoaldeko azken bakailao ontziaren jabea Angela Catalina de Mirubia getariarra izan zen. Balea ontzi baten jabe ere bazen, 1718an Passaroko itsas guduan galdu zena. Urte batzuk geroago, 1729an bera izan zen Gipuzkoako balea ontziteria birsortzean inbertitu zuen lehen enpresaria.

Pero con el paso del tiempo, nuestras expediciones bacaladeras fueron disminuyendo. A principios del siglo XVIII, la última nao bacaladera del País Vasco Penínsular pertenecía a la armadora getariarra Ángela Catalina de Mirubia que también fue propietaria de una nao ballenera hundida en 1718 durante la batalla marítima de Passaro. Años más tarde, en 1729, la misma armadora participó activamente en el relanzamiento de la flota ballenera vasca.



Gure garaietara gerturatuz gatozen heinean, bakailaoaren historian emakumeek izandako papera nabarmendu egiten da, nahiz eta haien lan baldintzak eta gizarteak haiekiko zuen arreta ez ziren neurri berdinean hasi. Egoera honen adibiderik latzena 19. mendeko Bilboko Areatzako kaltetan aurki dezakegu. Bilboko eta inguruko sabelen gosea asetzeko, ehundaka emakume jarduten ziren bertan bakailaoa buru gainean hartuta zamaketa lanetan. Emakume hauen ondoan beste ehundaka jarduten ziren Bilboko portuan ikatz zamaketa lanetan. Lan gogor hori gutxi ordaindua izateaz gain, horretan jarduten ziren emakumeak, askotan, abereak baino okerrago hartzen zituzten aintzat.

A medida que nos acercamos a nuestros días, se hace más patente la participación de las mujeres en las tareas asociadas al comercio y la manipulación del bacalao. Aunque ello no supuso ningún tipo de reconocimiento laboral o social añadido.

El mejor ejemplo de esta situación se encuentra en los muelles bilbaínos, (Arenal, Olabeaga o Uribitarte), a mediados del siglo XIX. Para alimentar a los habitantes de Bilbao y alrededores, cientos de mujeres se dedicaban a la descarga del bacalao, transportándolo en cestas sobre su cabeza hasta los almacenes cercanos. Otras tantas se dedicaban a la carga y descarga de carbón en el puerto de Bilbao. Además de ser trabajos duros y poco remunerados, estas labores a menudo conllevaban castigos físicos y tratos vejatorios.



Denboran zeharreko ibilbide honen azken geldialdia Pasaian egingo dugu. Bertan 20. mendearen lehen hirurenatik aurrera bakailao industriak sekulako garrantzia hartu zuen. Industria honen garapenak gora egiten zuen bitartean, langileen egoerak ez zuen hobekuntza nabarmenik. Eta gizasemeen lan egoera kaskarra bazen, enpresetan sare konpontzen edo bakailaoa sailkatzen zebiltzan emakumeen baldintzak oraindik are eta kaskarragoak ziren. Beren lan postuetatik bazkaltzeko ere etxeratu ezinik edo zenbaitetan soldatarik gabe lan egitera behartuak aurkitzen ziren maiz.

La última parada de este itinerario en el tiempo es en Pasaia. En esa localidad gipuzkoana, a partir de las tres primeras décadas del siglo XX, la industria bacaladera adquirió una gran importancia. Pero, este desarrollo de la actividad bacaladera, no llevó aparejado una mejora significativa en las condiciones laborales de los trabajadores. Y si la situación laboral de los hombres era mala, la de las mujeres, que reparaban la red o clasificaban el bacalao, seguía siendo peor. Con frecuencia tenían que comer en sus mismos puestos de trabajo y, en ocasiones, se veían obligadas a realizar tareas no remuneradas.



Hau guztiagatik, gaurko egun honetan bakailoaren munduan lan egin duten emakumeak oroitu eta omendu nahi ditugu, jaki eder hori dastatzen dugun bakoitzean emakume haien aurpegi nekezak eta bizimodu gogorra ez ditzagun ahaztu.

Por todo ello, hoy, en esta fecha tan señalada, queremos recordar y homenajear a las mujeres que han trabajado en el mundo del bacalao. Para que, cada vez que saboreemos ese manjar, no nos olvidemos de sus rostros curtidos y de su dura vida.

